

40
URTE / AÑOS / YEARS



UDA IKASTARROAK
CURSOS
DE VERANO
SUMMER COURSES
www.uik.eus

Donostia Sustainability Forumak, UPV/EHUren Uda Ikastaroen testuinguruan, farmakokutsadura, sendagaien eragina ingurumenean, aztertze jardunaldia egin zuen ekainaren 17an. Hizlari gonbidatuak **Gorka Orive**, EHUko Farmazia Fakultateko irakasle eta ikertzailea, eta **Unax Lertxundi**, Osakidetza Arabako Osasun Mentaleko Sareko Farmazia Saileko burua, izan ziren. Bi ikertzaileek Araban farmakokutsaduraren ikerketan eta konponbideak bilatzen aitzindaria den berrikuntza programa bat bultzatzen dute.

Sendagaiak funtsezkoak izan dira eta oraindik badira pertsonen bizi kalitatea hobetzeko eta bizi itxaropena handitzeko, baina gero eta gehiago kontsumitzen dira, eta kutsatzaile berriak direnez, ingurumenean eta, bereziki, animalien eta landareengan eragin ezezagunak dituzte. Kalkuluen arabera, gaur egun 4.000 substantzia farmakologiko aktibo inguru erabiltzen dira munduan desberdinak, bai gizakien bai animalien osasunean erabiltzeko. Unax Lertxundik azaldu zuenez, hamar botikatik baten eragina bakarrik da ezaguna ingurumenean, eta horregatik ia ezezaguna den arazo baten aurrean gaude, baita osasun-arloko profesionalentzat ere.

Gorka Orivek zehaztu zuenez, sendagaiaren zikloari dagokionez, icebergaren tontorra bakarrik ezagutzen da; izan ere, arrastoa galdu egiten da sendagaiak iraitzi eta hondakin-uretan isurtzen direnean. Gaur egun, konposatu horietako askok ura arazteko estazioetan erabiltzen den garbiketa-teknologiari ihes egiten diote, eta, ondorioz, ingurumenean amaitzen dute.

Orain arte, 700 farmako baino gehiagoko hondakinak atzeman dira ingurumenean, batez ere hondakin-uretan, ibaietan eta lakuetan, baina baita zoruan, airean eta edaten dugun txorrotako uretan ere. Unax Lertxundik aipatutako ikerketa baten arabera, Espainiako hainbat hiritan txorrotako urak botiken berrogei substantzia inguru ditu. Presentzia hori ez da arriskutsua osasunarentzat, baina kontrolatu egin behar dela gaineratu du.

Eraginak animalien

Farmakokutsadurak ur ekosistemetan dituen ondorioen adibiderik ezagunenetakoa bat da antisorgailu hormonalek arrainen eta anfibioen feminizazioan duten eragina. Ondo ezagutzen den beste kasu bat da 90eko hamarkadaren hasieratik Indiako azpikontinentean hiru sai espezie desagertu izana. Behi aziendetan erabiltzen diren diklofenakoak putreen populazioak pozoitu zituen ia desagertzera. Osasun publikoko arazo bat da Indian eta Pakistanen, hegazti sarraskijaleek ez baitituzte hildako animalien hondakinak ezabatzen. Espainian orain dela gutxi diklofenakoa onartu izanak sai baten heriotza eragin du Lleidan, Unax Lertxundik adierazi zuenez.

Farmakokutsaduraren ondorioak sistema ekologiko osoan nabaritzen dira. Horregatik, Gorka Orivek azaldu zuen One Health kontzeptuaz hitz egiten hasi behar dela, gizakien osasuna animalien eta ingurumenaren osasunarekin lotzen baitu.

Arazoak eta konponbideak

Botikak gehiegi preskribatzeak eta gaizki erabiltzeak farmakokutsaduraren ondorioak areagotu ditzake, eta horregatik da garrantzitsua gizartea, oro har, eta osasun-sektorea, bereziki, gai horren inguruan sentibilizatzea. Gasteizko Udalak, Arabako Foru Aldundiak, Euskal Herriko Unibertsitateak, Bioaraba Osasun Ikerketako Institutuak, Vital Fundazioak, Arabako Farmazialarien Elkargo Ofizialak, BIC Arabak, AMVISAK eta Aquadatek farmakokutsaduraren arloan berrikuntza programa bat garatzeko protokolo bat sinatu zuten otsailan, Gasteizen eta Araban botiken kutsaduraren aurkako irtenbideak ikertu, aplikatu eta zabaltzeko konpromisoa jasotzen duena.

Proiektu honen barruan Gorka Orivek eta Unax Lertxundik bultzatuko dituzten ikerketen artean, Krispiñako araztegi kutsadura maila neurtzea dago. UPV/EHU farmakokutsaduraren arloko lehen graduondokoa sortuko da, eta 2021-2022 ikasturtean jarriko da abian.

Ekofarmakozaintza

Europar Batasunean kontsumorako onartzen diren sendagaiak 2005etik ingurumen inpaktuari buruzko txosten bat egin behar dute. Hala ere, gaur egun, txosten informatiboa baino ez da. Hori, gaineratu zuen

40

URTE / AÑOS / YEARS



UDA IKASTAROAK

**CURSOS
DE VERANO
SUMMER COURSES**

www.uik.eus

Unax Lertxundik, etorkizunean alda liteke. Ezin da baztertu sendagaiak merkatutik kentzea, ingurumenean duten inpaktuagatik, kontzeptu berri bat sortuz: ekofarmakozaintza. Nolanahi ere, sendagai horiek beste batzuekin ordezkatu daitezke; izan ere, Gorka Orivek adierazi zuenez, osasuna babesteak lehentasuna izan behar du.

[Ikusi webinarra](#)